

berria

Igandea

2017 - III - 5
XV. urtea. 4.253. zenbakia

1,80€

ARGAZKIA: INGOURIZ/ARGAZKI PRESS - MUNDIALETA, BERRIA

Lanbide zokoratua

Etxeko langileek legez dituzte beste langileek baino baldintza eskasagoak, baina, gehienetan, gainera, urratu egiten dizkiete, haien testigantzetan argi agertzen denez. Bazterturiko sektore bat da, gizarte behar asko bete arren aintzarik jasotzen ez duena.

2

Jabier Larrañaga

«Ez da arazorik zergak aldatzeko, hobetzeko, baina egiten dugunak neurtua izan behar du»

16

Ipar Irlanda

DUPek beto eskubidea galdu du hauteskondeen emaitzekin, eta Sinn Fein indartuta atera da

21

Pentsamendua

Saiakerak eta gogoetarako idazlanak ugaritu egin dira, itzulpen, lan eta bilduma berriekin

Nasan • 33

BAZTERREKO SEKTOREA

Emakumeak dira gehienak, eta lan isilean dihardute: etxeak garbitzen, arropak lisatzen, haurrak eta adinekoak zaintzen. Ozentzen ari dira haien lan baldintzen aldeko mezuak; legez dira gainerako langileenak baino kaskarragoak, eta legea bete ere ez da egiten, gainera, sarri askotan.

Arantxa Iraola

Gainerako langileen gisako tratua nahi dugu guk; nik elektrikari baten, iturgin baten edo fabrika batean ari den langile baten gisako tratua nahi dut legearen partetik. Zergatik ez dugu? Nori ez zaio interesatzen hori horrela izatea?». Caridad Jerez (Albacete, Espainia, 1957) Nafarroako Etxeko Langileen Elkarteko presidentea da, eta, elkarteko gainerako kideen gisan, etxeoko langilea. «24 urte daramatat etxe berean. Egunean hiru ordu egiten ditut». Elkartearen martxari eusteko gorriak ikusten dituztela onartu du: zaila da gainerako langileekin hartu-emanak ehuntzea, haiengana iristea. «Hego Amerikakoak dira asko eta asko, etorkinak, eta egoiliar egon nahi dute». Egoiliarren dira, hain justu, lan egiten duten etxean bizi diren langileak: adineko pertsonak zaintzen aritzen dira sarri askotan. Atsedean une urriak izaten dituzte, eta haien berri izatea nekeza izaten da. Kezka ere izaten dute sarri, elkartera agertzen badira haien burua nabarmentzekoa: «Maiz zaila da emakumeak erakartzea; beldur handia dago sektorean: lana galtzeko beldurra». Emakumeak esan du. Ezin bestela; ikerketen arabera, etxeoko langileen %95 emakumezkoak dira. Bada beste berezitasun bat: etorkinak dira asko; egoiliarren artean ia denak. Horrek aparteko izaera ematen dio sektoreari. Nolanahi ere, eskubideen aldeko borrokan lanean jarraitzeko asmoa dutela azaldu du

Jerezek. «Agintariak dotore asko agertzen dira bazter guztietan, haien seme-alabak ere bai. Nork egiten dizkie etxeoko lanak?». Isabel Otxoa EHUko irakaslea da, eta ATH-ELE Bizkaiko etxeoko langileen elkartereko kidea. Bat dator: «bidegabekeria» ugari daude etxeoko langileen lan baldintzetan. Espainiako legerian Langileen Estatutuak zedarritzen dituen irizpideak alderatzen badira etxeoko langileenekin –aparteko erregimen batek arautzen ditu haien lan baldintzak–, hara aldea; 40 orduko lan astea dute, oro har,



Batzuek uste dute egoiliar egoteak esan nahi duela egun guztietan aritzea, ordu guztietan...»

Oscar Vellisca
Abokatu

«Zaila da sarri emakumeak erakartzea; beldur handia dago sektorean: lana galtzeko beldurra»


Caridad Jerez
Nafarroako Etxeko Langileen Elkartea

beharginek; etxeoko langileen kasua 60 ordura arte luza daiteke; gainerako langileek ez bezala, etxeoko langileek langabezia saririk ez dute kobratzen; haientzako kalte-ordainak, halaber, apalagoak izaten dira, eta erretiroa kobratzeko garairako 862,44 euroko muga dute: «Eta, ondorioz, erretiro oso-oso apalak dituzte». Adibide bat ipini du Otxoak zeri buruz ari den hobeto esplikatzeko, elkartean artatu duten andre ba-

tena: «2016an, 47 urtean eta zortzi hila-beteen kotizatzen aritzen andre baten berri izan genuen; beti kotizatu zuen legeak uzten zion gehiena, denboran etenik izan gabe, gainera: Gizarte Segurantzak onartu zion pentsioa, ordea, 641,7 eurokoa izan zen. Ez zen iazko gutxienean soldata ere iritsi». Legez, horiek guztiak dira aldeak.

Baina lege mehar hori bete ere ez da egiten sarri askotan: berriki ATH-ELEK plazaratutako datuen arabera, etxeoko langile egoiliarren %75ek astean 60 ordu baino gehiago egiten dituzte lan; %82k ez dute jasotzen jaso behar luketen soldata. ATH-ELE elkartearen abokatu ari da Oskar Vellisca, eta lege urraketak ohikoegiak direla salatu du. «Ordu egietan, oporraldietan, soldatetan...». Langile egoiliar askok, bereziki, lanaldi oso luzeak izaten dituztela salatu du. «Batzuek uste dute egoiliar egoteak egun guztietan aritzea esan nahi duela, ordu guztietan...». Eta lan arloko lege urraketek aparte, badira bestelakoak: Sortzen aholkularitzak 2011. eta 2014. urteetan egindako azterketa baten arabera, adibidez, etxeoko lanetan ari diren andre etorkinen %22k lan eremuan sexu jazarpena jasan izana aitortu zuten.

LABeko ordezkaria da Eñaut Aramendi, Lapurdin. Han ere etxeoko langileen egoerak zer horbetu franko duela argi du. Frantziako legeriak ez die ezartzen aparteko erregimenik, baina lan baldintza «prekariotan» ari dira sarri. Familiek zuzenean kontratatuta, elkartean bidez –hainbat langileren zerbitzuak eskaintzen



789,20

GUTXIENEO SOLDATA

ATH-ELE elkarteak artatzen dituen langileei adierazten die gutxienean 789,20 euroko soldata kobratzeko 40 orduko lanaldiaren trukean. Hortik aurrera, sartzen duten ordu bakoitzeko igo egin beharko litzateke kopurua, 60 ordu egiten badi-tuzte 1.267 euro kobratu arte. Ez da ohikoa; elkartearen arabera, langile egoiliarren %81ek ez dute kobratzen eginiko orduen arabera dagokiena.

dituzte –kontratuak bideratuta, edo zerbitzu publikoek ematen dituzten baliabideen bidez; hiru modu horietara hel daitezke beharginak etxetara, eta guztietan zer hobetua dagoela pentsatzen du. «Askotan 06:00etan lanean hasi eta 19:00etan bukatzen dute». Etxez etxe ibiltzen dira maiz, kontratatu dituenak halaxe eskatuta, baina batetik bestera joaten pasatzen duten astia ez diete pagatzen, eta garraio gastuak ere haiek ordaindu behar izaten dituzte sarritan. Zuzenean familiek kontratatukoek usu familia barruko desadostasunek dakartzaten ondorio mingotsak pairatu behar izaten dituzte. «Askotan ibili behar izaten dute hiru, lau edo bost nagusi balituzte bezala, batek gauza bat esaten duelako; besteak, berriz, bestea».

2012. urtean Espainiako Gobernua sektorearentzat atal berezi bat ezarri zuen Gizarte Segurantzari, eta ordutik ikusi dute igo egin dela kotizatzen duten langileen kopurua; ATH-ELEk emandako datuen arabera, orduan 20.581 andrazko zeuden izena emanda Hego Euskal Herriari etxeoko langileen atalean; orain, berriz, 37.084. Aurrera urrats bat da, baina apala. «Oraindik langileen ehuneko handi bat dago Gizarte Segurantzari izena eman gabe lanean», ohararazi du Otxoak. «Lanaldi osoan ez dau den andrazkoetan agertzen den arazo bat da, bereziki. Gehienak bertakoak dira, eta guk askotan nabarmentzen dugu horietatik direla, hain zuzen ere, ikusezinek». Izan ere, prekaritatea sektore osoan da agerikoa.

Hala ere, andre etorkinen egoerari aparteko begirada bat ematea garrantzitsua da; egoiliar gehienak etorkinak dira, eta paperik gabean artean lanerako aukera bakanetakoa da askotan etxeoko langile gisara aritzea. Emakundek iaz ikerketa batean plazaratutako datuen arabera, balantzaren desoreka agerikoa da, kanporetan etorri diren andrazkoen kaltetan: hain zuzen ere, etxeoko lanetan kontraturik gabe ari dira etxeoko langile etorkinen %24; bertan jaiotakoan artean, berriz, %14,4 dira tankera horretan ari direnak, langile guztiak aintzat hartzen badira, %1,4.

Zaintza lanetarako kontratatzen dira etxeoko langileak egun maiz: adineko pertsonak zaintzeko gheienetan. Instituzioek zaintzarako ahalbidetzen dituzten laguntza zerbitzuak –udaletatik, esaterako, etxez etxeoko laguntzaileak bi-

Etxeko langileak
Lan egoera

deratzen dira premian direnen etxeetara: gehienez egunean hiru orduko laguntza dakarte, eta berriro indutako zerbitzua da, ez debaldekoa— aski ez dira askotan, eta hutsune bat betetzeko erabiltzen dira etxeko langileak. Mendeko pertsonak zaintzeko kontratazioak egiteko bideratzen diren diru laguntzak ere —Gipuzkoako Foru Aldundiak jorratu du, bere-



Gaur egun, lan ikuskaritzek ez dihardute sektorean, ez sistematikoki, ezta bizkortasunez ere»

Isabel Otxoa
ATH-ELE elkarteak

«Paperik gabekoek sentitzen dute iraun egin behar dutela; negoziatorako tartea oso apaldua dute»

Stijn Callens
Gipuzkoako SOS Arrazakeria

ziki, bide hori, aitzindari: era horretako 5.000 diru laguntza eman ditu— etxeko langileen kontratuak egiteko erabiltzen dira gehienetan: langileen %90 era zuzenean kontratatzen dira, langileak bigarren mailako egiten dituen erregimen horren barruan, hain justu. Gainerakoan familiek eska ditzakete laguntzak mendeko pertsona etxekoren batek zaintzeko. Eta, hain zuzen ere, laguntza hori ere erabiltzen dute sendi-

askok etxeko langileak kontratatzen. Halakoak sarri ikusten dituztela azaldu du Otxoak, eta gehiegikeriak ere antzematen dituztela: «Mendeko pertsona zaintzeaz gain, bestelako etxeko lanak ere egin behar izaten dituzte askotan behargin horiek». Instituzioek, laguntzak emanda ere, behargin horien lan baldintzak kontrolatzeko deus gutxi egiten dutela adierazi du. «Beste alde batera begiratzen dute». Sendi askok sarri halakoetan langile egoiliarrek hautatzen dituzte: gau eta eguneko zaintza bermatzeko.

Ikuskaritzen zailtasunak

Eta egoiliarren lan astea, bereziki, oso luzea izaten da: ia atsendenik gabea sarri. «Langile askok egiten dituzte astean 60 ordu baino gehiago», deitoratu du Velliscak. Egoiliarren lanaren gogortasuna agerian uzten duten testigantzak usu entuzten dituztela onartu du Jerezek ere: «Ia 24 ordu zaintzen duzun pertsona horren arabera, oso gogorra da hori». Sektoreko urraketen aurrean, hala ere, kontrol falta antzematen du Nafarroako Etxeko Langileen Elkarteko presidentek: «Esaten dute laneko ikuskatzaileak badirela: guk ez ditugu inoiz ikusi». Bat dator Otxoa kritikari: «Gaur egun lan ikuskaritzek ez dihardute sektorean, ez sistematikoki, ezta bizkortasunez ere». Horren ondorioz, salaketa gutxi ipintzen di-

72

KONTRATU IDATZIAREKIN
ATH-ELEk iaz artatutako langile egoiliarren %72k zuten kontratu idatzi bat. Lege babesa edukitze aldera oso garrantzitsua dela diote andreei aholkularitza ematen dihardutenek. Usu paperean jarritzen duena ez da betetzen, ordea.

21,6

LANGILE ETORKINEN ARTEAN PAPERIK GABEAK. ATH-ELE elkartek berriki jakinarazitako datuen arabera, haiek iaz artatutako langileen —egoiliarrek eta bestelakoak— langileen %78,4 etorkinak ziren, eta horien artean %21,6k ez zuten paperik. Bertan sortutako beharginak %14,1 ziren.



(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

«Klasismoa». Elkarrizketa hasi eta berehala agertu da hitza: «Iruña oso klasista da». Hantxe jardun zuen etxeko langile; haiek batzen dituen Nafarroako elkartean dihardu egun, laguntzen.

Maria Gomez. «Zenbait etxetan zu neskamea zara: besterik ez»

A. Iraola Iruña

Erretiroa hartuta dago Maria Gomez (Vigo, Galizia, 1950), eta Nafarroako Etxeko Langileen Elkartean dihardu: laguntzen. Maite dute hara joaten diren andreek, *Marita* da haien izen. Babesa eta abar da askorentzat. Hamasei urte egin zituen, aurretik, etxeko langile, Nafarroan. Horietako hainbat urte egoiliar egin zituen; alegia, lantoki zituen etxeetan bizitzen. «Aurrena, ume bat zaintzen egin nuen bola-

da bat», azaldu du. «Gero, berriz, adineko gizonetako baten etxean egon nintzen. Eta, oro har, nik ez dut inolako kezarik: suerte handi—handia izan dut». *Baloratu*. Hitzean eta hortzean darabil hitz hori. «Baloratu egin behar da etxeetan egiten den lana. Izan ere, etxe bat eramatea lan garrantzitsua da: oso garrantzitsua. Baloratu egin behar da hori». Horregatik, ez du ulertzen legeak berak dakarren bazterkeria. «Nola ez dela lana guk egiten duguna? Arropak garbituta eta lisatuta izatea, etxera joan eta bazkaria pres-



INGO URIZ / ARGAZKI PRESS

tatuta edukitzea... Hori ez da lana? Bada, lan hori eginda dutelako egon daitezke pertsona asko goi-goian, bestela ezingo lukete».

rela uste du. Eskubideei buruzko ezagutza falta ere askotan eragozpen dela ohartarazi du Velliscak. «Eskubiderik ez nuela uste nuen», esan izan digute behin baino gehiagotan etxeko langileek. Garrantzitsua da haiek eskubideen berri izatea». Baina, hala ere, alorrean jardutea ez dela batere erraza onartu du Eusko Jaurlaritzako Lan Ikuskaritzako zuzendariorde Ricardo Minguezek. «Talde profesional horren ezaugarria da lan egiten duten tokia pertsona baten edo gehiagoren bizilekua izatea; zuzenbide konstituzionalaren arabera, ordea, ezin bortxatuzkoak dira etxeak, beraz, horietara ezin da sartu gainerako lantokietara bezala». Ondorioz, etxeetako korridore, ohe buru eta sukalde bazterretan ahitzen dira usu urraketak: intimitateak epeletik deus ez duen leku hotzitan. «Biziki zailtzen du lan harremana egiaztazea, baita horrekin lotutako gainerako aldagai

guztiak ere: ordutegia, soldata eta abar», onartu du Minguezek.

Bat dator Nafarroako Gobernuko Lan Zuzendaritzako Lan Zerbitzuko zuzendaria, Javier Zubikoa; etxeetako sarrailek giltzatuta daude etxeko langileen lan harremanak. «Zailtasun handiak daude ikuskaritzarako», onartu du. «Planifikazioan egin dezakegu lan; informazioa ematen, sentibilizatzen». Nolanahi ere, bestelako bideak badirela adierazi du Velliscak, eta aintzat hartu beharok lirarekeela. «Askotan lan harremana frogatzea izaten da arazo; etxera sartu ezin bada ere, bada bestelako erak: lekukoak eta abar». Ohartarazi du eskubide-dunak direla langileak beti, baita kontratu idatzirik —izatea komeni dela gogorazten diete langileei elkartean beti— ez degonean ere.

Eragozpenak eragozpen, ahaleginetan direla esan du Minguezek: «Iaz, esaterako, 65 jardunbide egin ziren sektorean». Eta asmoa badute arau hauste gehiago atzemateko: hain zuzen ere, webgune bat eratu nahi du Jaurlaritzako

ditugu». Tamalez, ez du horrelako egoerarik ikusten usu inguruan. «Jendeak beldur handia du. Eguberrietan, esaterako, elkarretaratze bat egin genuen elkartekook sektorerako lan baldintzak hobetzeko eskatuz, eta andrazko batzuk mozarrotuta azaldu ziren protestara. Beldur handia dago».

Motiboak badirela uste du: «Iruña oso klasista da, etxeko langileak 60ko hamarkadan bezala tratatzen dituela iruditzen zait». Eta orotariko soslaia direla argi utzi nahi du. «Nik badut, esaterako, lagun ingeniari bat, 50 urte ditu, eta badauki horretan ez duela lanik aurkituko: bada, etxeko langile dabil. Erizaina da beste bat. Aldiz, etxe askotan tratatzen zaituzte baserri galdu batetik jaitsi berria bazina bezala. Horrelako tratuak ikusten dira», deitoratu du. «Zenbait etxetan zu neskamea zara, besterik ez; berdin da ikasketak izatea, neskame soil baten gisan tratatzen zaituzte».

(Aurreko orrialdetik dator)

Lan eta Justizia Sailak zeinean salaketak aurkeztu ahal izango diren modu anonimoan. Salaketak jartzea aski urrats zaila da, hala ere, emakume askorentzat, sentimenduek –txerak, errukiak, lotsak, izuak– ehundutako habia baita sarri askotan lan egiten duten lekua: lantokia eta bizitokia.

ATH-ELEk hainbat eskari egin ditu Eusko Legebiltzarrean etxeko langileen baldintzak hobetze aldera. Osalane, esaterako, sektoreko lan osasunari erreparatzea nahi dute, ogibidearen ondorioz sortutako osasun arazoak aintzat hartzeko. Horren premia gorria dagoela uste du Otxoak. «Egoera ia historiaurrekoa da». Eusko Legebiltzarrean eskatu du, halaber, sektorea ikertzeko eta etxeko langileen jardunarekin zer behar tapatzen diren argitzeko. Orokorrean, ordea, bazterkeria egoerak «betiereko» egiteko joera usuegitan ikusten dutela gaitzetsi du Otxoak. Hara adibide bat: etxeko langileek ezin dituzte Jaurlearitzak familia eta lana bateratzeko ematen dituen laguntzak eskuratu. Etxeko langileen eske sortari atxikita, EH Bilduk hori bertan behera uzteko eskatu du; EAJ eta PSE-EE, ordea, kontrako proposamen batean batu direla salatu du Otxoak. Onartezin deritzo: «Jarrera zuzentzea espero dugu».

Paperik gabe, nekezago

«Langile paperik gabean kasuan egoeraz baliatu egiten dira lana

ematera doazen asko; soldata oso baxuak jartzen dizkiete, eta lanaldi luzeak. Andreek onartu egiten dituzte baldintza horiek paperak lortzeko kontratu bat eskuratzeko esperantzaz». Isabel Otxoak kontatzen duenez, sarri entzuten dituzte halako istorioak elkarte-an. Atzerritarren Legeak etorkinentzat zedarrizten dituen bizi baldintza zailen ondorio argia da egoera: hiru urteko egonaldia frogatu arte ezin dute legezko paperik eskuratu, eta hiru urte horietan bizi egin behar da: nola edo hala. Behin hiru urteko egonaldia frogatuta, lan kontratu bat badute, paperak lortzeko era egin dezakete etorkinek, eta horixe izaten dute askok jomuga. Zapuztu ere egiten da, ordea: gehiegitan. «Zenbaitetan, sustraitzea erakutsiz paperak lortzeko bidea ikusten dutenean, kontratua eskatzen dute, eta bota egiten dituzte orduan», deitoratu du Otxoak. Kasurik onenetan ere lan baldintzen kaskartzetengabea dakar etorkinen babesgabetasun egoerak, EHUko irakaslearen ustez: «Bizileku baimena berritzeko lan kontratu baten eskaintza izan behar dute derrigorrean etorkinek; lotsagarria da. Paperak berritzearen trukean edozein eskaintza egitera darabada jendea». Eta etorkinen presentzia handia da sektorean: etxeko langile egoiliar

Etxeko langileak
Lan egoera

ari diren ia denak, esaterako, etorkinak dira. Hainbat kalkuluren arabera, langileen laurdenak ari dira egun paperik gabe.

«Oso-oso portzentaje handia da hori», ohartarazi du Stijn Callensek. Gipuzkoako SOS Arrazakerian aholkulari dhardu, eta ongi ezagutzen du langile horien egoera. «Portzentaje horrek agerian uzten du pertsona horien premia: diru hori behar du bizi-tzeko, eta, haien egoeran, beste lanen bat lortzeko hauturik ez dute. Ondorioz, sarri gauza asko jasaten dituzte lana mantentzeko. Eta horri kontratu baten promesa eranstean badiozu, ba paperik gabeko emakumeek sentitzen dute irauin egin behar dutela lan horretan, ahalik eta gehien. Negoziaziorako tartea aski apaldua duten pertsonak dira». Gogorarazi du, gainera, sarri Euskal Herrian familia sarerik ez duten pertsonak direla, eta horrek are gehiago zailtzen duela haien egoera. «Horrez gain, jatorritik ere presio handia dute; familia han utzi dute, seme-alabak: dirua irabazteko egiten da hori». Migrazio proiektua hasteko zortetan sartutako emakumeak ere ikusten dituzte sarri. Horiek horrela, *epaitegi* edo *salaketa* hitza entzute hutsak andrazko asko

artega ipintzen dituela onartu du Velliscak: «Uste dute epaitegiari iristea txarra dela haientzat».

Soka tenkatuta

Eta, hain zuzen ere, gehienetan egoera aski larrietan hurbiltzen dira aholkularitza jasotzeko tokietara etxeko langileak. «Krisia ja sortu denean etortzen dira; esaterako, lanetik era bidegabean bota dituztela kontatzen», azaldu du Callensek. Susmoa du askotan «bakarkako» borroka luzeen ostean heltzen zaizkiela, lantoki duten etxeko soka oso tenkatuta dagoenean, edo guztiz apurtuta. Pertsona horiek paperik gabek badira, ahalegintzen dira egoera horren «abstrakzioa egin» eta haien lan eskubideak beste edozein langilerenak bezala defendatzen administrazioaren aurrean. Kontratu idatzirik ez badago ere, langile horien defentsa egin daitekeela oroitarazi du SOS Arrazakeriako ordezkariak. Paperik ez dute, gainera, dena konpontzen. Paperak dituzten etorkinekiko egoera bidegabek ere usu ikusten dituzte aholkularitza ematean: «Prekariotasuna ez da paperik bakarrik konpontzen».

Zuztarretara egin behar dela uste du Otxoak. «Lanaldi luzeak badaude, eta soldata bidegabek, hori gertatzen da behar horiek ez direlako betetzen beste era batean», ohartarazi du. «Giro bat sortu behar da zeinean ez diren behar harko 12-14 orduko lanaldietan egingdako zaintzak. Zaintzeko modu hori ez da iraunkorra».

Ekuadorren sortua da, eta esperientzia luzea du etxeko lanetan; ozen adierazi nahi du zaharrak zaintzen egiten duten lanaren balioa eta duen zailtasuna: «Lotura aski estuak sortzen dira».

Gina Medina. «Bizitza bat zaintzen ari naiz, ez altzari bat»

A. Iraola

Adineko emakumezko bat zaintzen du, egun, Gina Medinak (Quito, Ekuador, 1983), Hernanin (Gipuzkoa). «Arratsaldeetan, hiru orduz: eguneko zentrotik ateratzen denean jaso, askaria hartu, etxera joan, eta oherako prestatzen dut...». Urteak daramatza etxeko langile, baina zenbait esapidetara ez da ohitu oraindik; lana bigarren mailakotzat hartzen dela iruditzen zaio usu, eta horrek

hautsi egin behar dela adierazi du. «Zer ari zara, amona bat zaintzen?», galdetzen didate, ez, pertsona bat zaintzen ari naiz», azaldu du. «Bizitza bat zaintzen ari naiz, ez altzari bat». Lana zinetan aintzat hartu beharrekoa dela gogorarazi du: «Sei zentzuak darabidatzen harekin nagoenean». Eta emozioen amaraun nahasian ere eragina duela: «Lotura aski estuak sortzen dira; askotan ez da batera erraza izaten».

Trebakuntza lortzeko bideak sustatzen ari dira orain –datorren urtetik aurrera, esaterako, for-



JON URBE / ARCAZ/IPSIS

makuntza bat frogatu beharko dute mendekoak zaintzeko laguntza jasota kontratatzen diren pertsonen-, eta egoki deritzo,

baina langile guztiei horretarako bidea errazteko ahaleginak egin behar direla uste du. Eta sektoreko emakume asko paperik gabe egoteak ez du laguntzen: «Isatsari hozka egiten dion arraina da». Oro har, hala ere, azken urteetan instituzioetatik mendeko pertsonak zaintzeko bideratu diren laguntzei esker egoerak hobera egin duela uste du. «Kontrol gehiago dago, laguntzak lortzeko kontratua behar baita». Baina uste du bide luzea dagoela oraino.

16 urterekin hasi zen etxeko langile, Utielen (Valentzia, He-

rrialde Katalanak). «Bi adineko pertsonaren etxean egon nintzen... Haiekin eguneko 24 orduetan egon behar nuen, goizeko ordu bietan bazen, ba goizeko ordu bietan. Herria ezagutu ere ez nuen egiten». Egokitu zaio etxeko langile kontratua erabiltzea baita bestelako lanak egiteko ere. «Behin, landetxe batean jardun nuen, Palman. Ustez ume bat zaintzera joana nintzen hara, baina hango martxa eramatea egokitu zitzaidan; logelak garbitzea, janaria prestatzea... Hala ere, kontratua egin zidatenean etxeko langileen erregimenean sartu ninduten». Erregimen aparteko horrek dakarren prekariotasuna errotik erazi behar dela uste du, lan baldintza kaskarrekin langile horiek gutxieste ere badakarrela, eta hainbat arbuio pairatzea: «Sexu jazarpena, arrazismoa... Horrelakoak entzuten dira. Eta are gehiago pertsona iritsi berrietan. Beldur izaten dira: 'Hobe isilik egotea', esaten dute».

Etxeko langileak
Elkarrizketa

«Etxeko enpleguak, egun dagoen bezala, desagertu egin beharko luke»

Liz Quintana • Abokatua

Emakumeek hainbat arlotan duten prekaritatearen atzean zaintza dagoela uste du. Hartara, behar horiek beste modu batera antolatzearen alde egin du: norbere ardurak hartuz, eta pribilegioez hausnartuz.

Maite Asensio Lozano Bilbo

Zuzenbide ikasketak amaitu eta berehala hasi zen etxeko langileen eskubideak auzitegiaren defendatzen. Militantzia ere haiei lotuta egin du, Etxeko Langileen Bizkaiko Elkartearen lehenik, eta Brujas y Diversas kolektiboan orain. Liz Quintanak (Portugalete, Bizkaia, 1966) dio denetarik entzun eta ikusi duela, eta gehiena txarra izan dela.

Zuk esana da: etxeko lanak emakume pobreen kontua dira, eta gero eta gehiago etorkinena. Zein analisi egin daiteke horren inguruan?

Historikoki etxeko lanak emakumeek egin dituzte, beti; eta, enplegu bihurtu direnaren, pobreek. Duela hamarkada gutxi, andreak herrietatik edo landa eremuetatik etortzen ziren hirietara, neska aritzera. Egun, gizartea zahartzen ari da, eta zaintza beharriaren gehiago ditugu; baina hemengo emakumeek, muga askorekin bada ere, erabakitzen dute ez dutela zaindu nahi, edo ez behintzat eskusiboki, bizia hipotekatuz. Beraz, lehen inguruko herrietatik gertatzen ziren migrazioak nazioartera zabaldu dira: zainzarako eskulan oso merkea ekartzen ari gara batik bat Latinoamerikatik. Handik etorritakoen baldintzak ahalbidetzen dute hemengo emakumeek –gizonek zer esanik ez– egin nahi ez dituzten lanak kontratatu ahal izatea: besteak beste, egoiliar lana, zaintzen duten pertsonaren etxean bizi direnena; ia guztiak dirua atzeritararak.

Nolaki tratua jasotzen dute?

Sarri, mespretxuzkoa. Etxeko lanak gutxietsita daude berez. Ageriakoa da kontratatzaileek egiten dituzten adierazpenetan: pertsona bat etxean 24 orduz daukateanean, ordu libre bat ere ematen ez diotela, kexatzen dira ez duela ezer egiten! Edo pentsatzen dute-

nean atsedena dela zaintzen duten pertsonarekin paseatzea, meza joatea, edo telebista ikustea; atsedean hartzea da euren denborarekin nahi dutena egitea. Oso orokortua dago gutxiespen hori, baita beste zapalkuntzen inguruko kontzientzia dutenengan ere.

Etxeko enplegua ez da beti kontratatzen zaintzeko. Bikote batzuek gatazkak saihesteko hartzen dute langile bat.

Bai, emakumeek ez dutelako senarrek in etengabe borrokan aritu nahi. Hori ezin da konponbidea izan. Fitxa batzuk mugitzen dira, baina ez du egituraren eragiten: etxeko lanak egiteko edo antolatzeko ardurak andreen esku segitzen du; azkenean, bikoteko emakumeak dagokion lana egingo baitu langileak. Baina andre horiek urteetan gizonek erabilitako

«Oso orokortuta dago gutxiespena, baita beste zapalkuntzen inguruko kontzientzia dutenengan ere»

«Administrazioei oso ondo datorkie sistema horrela antolatuta egotea: erantzukizuna kentzen die»

argudioak baliatzen dituzte. Zein botere posizioan kokatzen ditu horrek? Auzi honi buelta emateko, bakoitzak dagokion arduratu hartu behar du; baina zein pribilegiari uko egiteko prest gaude?

Etxeko enpleguen parte horrek desagertu egin beharko luke?

Bai. Oro har, etxeko enpleguak, egun dagoen bezala, desagertu egin beharko luke, ezin delako sostengatu. Zaintzeak esan nahi badu andre batek 24 orduz itxita egon behar duela eri batekin, eutsiezina da. Egunotan, harremetan nago duela hamar hilabete heldutako batekin: baserri batean dago, alzheimerra duen gizon bat eta elbarri dagoen emakume bat

zaintzen, erabat bakarrik eta bakarrik, mugitzeko aukerarik gabe. Horrela konponduko al ditugu zaintza premia?

Etxeko Langileen Elkartearen arabera, egoiliarren %65ek andreak zaintzen dituzte; horrek adierazten du zerbitzu publiko nahikorik ez egoteak andre horiei egiten diela kalte handiena?

Andreak luzeago bizi dira, baina pentsio apalagoak dituzte: sarri ez daukate norbait ganoraz kontratatze modurik. Haien prekaritateak zaintzaileen prekaritatea elikatzen du, bi miseria uztartzen baitira: zaintza behar izanda ondo ordaindu ezin duenarena, eta premia larriaren egonda edozein baldintzatan lan egiteko prest dagoenarena. Baina orokorra da: emakumeek hainbat arlotan duten prekaritatea aztertzean, zaintzari erreparatu behar zaio; androei zaintzeak bizia baldintzatzen digu: denbora, aisia... eta eskubideak. Bizi proiektuan ere eragiten du, zaintzeagatik autonomia ekonomikorik gabe bizi direlako andre asko; horrek dakar mendeko izatea: bikotekideen, gura-

soen, oinarriko errentaren edo administrazioaren mendeko.

Etxeko langileen lan baldintzez asko hitz egiten da, baina ez hainbeste haiek nola sentitzen diren. Zer kontatzen dizute?

Egoera batzuk laggarriak dira: indarkeriazkoak. Egoiliarrek ez dutelako askatasunik euren bizitzaz ezer erabakitze; urteetan aisialdia, bizitza sexuala, trebakuntza, amatasuna... kendu egiten dizkiete. Etxeetan jaten dutena kontrolatzen diete, higienea, nori deitzen dioten telefonoz, janzkera, sinesmenak... Beste edozein lanetan salatuko genituzkeen gauzak normalizatuta daude. Oso gogorra da, askotan erabat bakarrik



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

baitaude: batik bat heldu berriek ez daukate inolako sarerik.

Zein neurritan dago hedatuta sexu jazarpena?

Jazarpen eta abusu kasu asko daude. Batzuetan, zainduta koaren senideek eginak dira, baina, beste batzuetan, adinekoek eurek egiten dituzte. Eta, burua galduta egon daitezkeen arren, mingarria da langileentzat; batzuek izua diote, adibidez, bainuaren orduari, etengabe jasan behar dituztela kan eta hemen ukitzeko eskaerak, indarka aritu beharra... Eta 24 orduz egon behar dira haiekin, deskonektatzeko aukerarik gabe. Sendiek, gainera, garrantzia kentzen diote; areago, gero eta mai-zago proposatzen dute langileen egitekoen barruan sartzea noizean behin sexu harremanak izatea zaindutako pertsonarekin, soldata apur bat igotzearen truke.

Beste edozein lanetan, salatze-ko modukoak lirateke halakoak. Lan honetan ez?

Sala daiteke, baina zaila da. Frogatu egin behar da, eta oso konplexua da eremu pribatuan gertatzen denean, lekukorik gabe.

Zer egiten du administrazioak? Badago solaskiderik?

Ez; ez dago ofizioz ikertzeke ekimenik, baina, salaketekin eta frogekin joanda ere, eskuak garbitzen dituzte: prozedura gehienek tiraderan amaitzen dute. Langileak babesik gabe daude. Nire ustez, administrazioei oso ondo datorkie sistema horrela antolatuta egotea, erantzukizuna kentzen dielako. Instituzioentzat eroso da: ez zaie presiorik egiten zerbitzu publiko gehiago jartzeko.

Iaz 27 urteko langile bat hil zen Bilbon. Indarkeria matxista gisara har daiteke?

Bai, kontuan hartuta nola gertatu zen: egoiliar zegoen, baldintza oso txarretan, aurretik izan zituen osasun arazoak, eta kontratatzaileei jakinarazi zien; medikuarenera joateko baimena eskatu zien, baina ez zioten utzi. Bihotzekoak jota hil zen arte. Andreak baldintza horietan edukitzen dituen sistema patriarkalaren ondorioa izan zen. Halakoei izen-abizenak jartzeko gai izan behar dugu. Nik ikusita daukat langileak gaixorik, hilabetez ospitalerata, eta zainduta koaren sendiaren presioa jasaten, lanera itzultzeko. Hori ez da soilik diskriminazioa: zuzeneko indarkeria da.

Etxeko langileak
Sindikatuak eta
enplegu agentziak

Sindikatu eta patronalik gabeko sektore bat da etxeko langileena. Sindikatuak antolatzen hasteko asmoa azaldu dute, baina, bitartean, etxeko langileen elkarteak eta enplegu agentziak aurrez aurre daude.

Pankartaren alde bietan daudenak

Lander Muñagorri Garmendia

Bi alde izaten ditu pankarta batek: salatzaileena, eta salatuen. Ohiko lan harremanen moldeetan, salatzailea sindikatuek ordezkatzen dute, eta salatua, enpresariak edo patronalak. Bada, etxeko langileen kasuan ez da halako figurarik existitzen pankartaren alde bakoitzean. Horretan ere berezia baita haien egoera. Sindikalizatu gabe dagoen sektore bat da, eta langileen eskubideen aldeko borrokaren ardura etxeko langileen elkarteek hartu izan dute maiz. Enpresari eta patronalik ere, izatez ez dago. Langileak, ordea, bere lan baldintzak enplegatzailearekin negoziatzen ditu, eta, akaso horregatik, norbanako horiek bete dezakete enpresaburuaren figura hori. Baina protestarik izan denean, etxeko langileen elkarteek enplegu agentzien aurka egin izan dute. Hau da, langilearen eta enplegatzailearen arteko bitartekari lana egiten duten agentzien aurka. Horregatik, salatzaileek agentzia horiei eman izan diote patronal izaera, haien ardura baita enplegatzaileari kontratazioen inguruko gutxieneko baldintzen berri ematea. Baina izatez, ez dago ez patronalik, ezta sindikatirik ere.

«Langileak sindikatueta antolatzen hasten direnean, orduan sortuko dira patronalak», azaldu du Jone Bengoetxea ELAko genero berdintasunerako arduradunak. Baina sindikatuek ez dute sektorerako gerturatzeko urrats handirik egin, eta hori da etxeko langileek behin eta berriro aurpegiaratu izan dietena. Kritika hori «justua eta zilegia da» Julio Sanchez Gonzalez ESK-ko batzorde nazionalako kidearen arabera, eta, horregatik, uste du sindikatuek «burua jaitsi» eta lanean hasi behar dutela. Baina, orain arte etxeko langileen aldeko bo-

rrokan murgildu ez badira, «sindikatuak egitura maskulinoak izan direlako» izan da, Bengoetxearen ustez.

Edozein modutan, egoera aldatzen ari dela dirudi. ESK hasia da etxeko langileentzako aholkularitza juridikoa doan eskaintzen, eta LABek maiatzean egingo duen IX. Biltzar Nagusian «sindikalis-moa birpentsatuko» dute, Izaskun Garcia idazkaritza feminista-ko kidearen arabera. Behin biltzarra igarota, arlo horretan lanean hasteko asmoa dute: «Au-

tokritika egin dugu, ikusten baitakenuen etxeko langileen kasuan hutsune nabaria geneukala, eta haien interesak nola babestu aztertu dugu; antolatzeko modu berri bat eskaini nahi diegu». Hala ere, ESK-k eta LABek ez dute egun lanean ari diren etxeko langileen elkarten lehia izan nahi. Alderantziz, haiekin elkarlanean aritu nahi dute, «orain iristen ez diren lekuetara iristeko aukera eskaintzeko asmoz».

Baina etxeko langileen arloak berezitasun ugari ditu. Langileek, gehienetan, bakarrik egiten dute lan eremu pribatu diren etxebizitzetan, askok bertan egiten dute lo, eta elkarrekin harreman gutxi izaten dute. Hori nahikoa ez, eta Gizarte Segurantzian ere erregimen berezi bat daukate. Arrazoi horiek guztiak darabilzate sindikatuek euren hutsunea justifikatzeko. Baina arrazoi berak darabilzate hemendik aurrera haiekin lan egin beharra daukatela argudiatzeko ere. Hala esan du Sanchez Gonzalezek: «Uste dugu ez daukatela gainerako langileek baino eskubide

gutxiago, baina antolatzeko garaian ezberdina da; metalaren sektorean ekintza sindikala egitea errazagoa da, langileek eremu berean egiten dutelako lan, eta patronala aurrean daukatelako».

Sindikatuentzat, beraz, langile horiengana nola iritsi asmatzea li-tzateke buruhauste nagusia. «Langileek guregana ez, baizik guk atera beharko dugu haienga-



«[Enplegu agentziek] badakite ez dituztela lan baldintzak ikuskatuko; beraz, nahi dutena egiten dute»

Lorea Ureta

Etxeko Langileen Elkarteak kidea

«Langile egoiliar bat eskatzen badigute, 900 euro baino gutxiagoren truke ez dugu egiten bitartekaritza lanik»

Serhogarek Durangon duen bulegoa

«Langileak sindikatueta antolatzen hasten direnean, orduan hasiko dira patronalak sortzen»

Jone Bengoetxea

ELAko genero berdintasunerako arduraduna

Senarrarekin batera utzi zuen Honduras, beharretik ihesi. Egoiliar urte asko egin dituzte ordutik senar-emazteek: adineko pertsonak zaintzen beti. Orain, orduka dabil; saihestu du etxe arrotzetan lo egin beharra.

Francisca Cortes.

«Oso sinplea da: nik haien beharra dut, eta haiek nirea»

A.Iraola Iruñea

Nafarroan 11 urte daramatzat; guztiak egin ditut adineko pertsonak zaintzen: guzti-guztiak». Senarrarekin


etorri zen Hondurastik Francisca Cortes (Tegucigalpa, 1962), eta oraintsu arte elkarrekin ibili dira lanean. «Orain, bakarrik ari naiz; senarrak ja 62 urte ditu. Hark ja ez du lanik: zaharra dagoela esan diote. Nik lanean jarraitzen dut».

Orain, lehen aldiz, bere etxera itzultzen da gauetan lotara. «Gainerako urte guztietan egoiliar ibili gara». Alegia, zaintzen zizutzen pertsonen etxean zuten bizilekua. «Oso gogorra da egoiliar egotea: oso», aitortu du. «Oso

INICO URIZ/ARGAZKIPRESS



triste da; nik ez diot inori horrelakorik aholkatzen. Gaua, ez. Egunez, errazagoa da moldatzea. Baina gaua! Zaintzen ari den agurari zerbait pasatzen bazaio?». Itaunean eten du solasa. «Aurrera egin behar da». Iruñean bizi ditu alabak eta bilobak, eta orain haiekin egoteko astia izatea harriarria iruditzen zaiola aitortu du. «Lehen, haiek hemen ez zeu-



Etxeko langileak

Sindikatuak eta enplegu agentziak

na», dio Garciak. Etxeko langileen eremua sindikalizatzeko, bestalde, Bengoetxeak iraganean ere polarizatuta zeuden beste sektore batzuk hartu ditu eredutzat: etxeko atarietako garbitzaileena, edo etxetzeko zerbitzua eskaintzen zuten langileena. «Etxeko atarietako garbitzaileen kasuan, urtebetez lanketa handia egin zen atariz atari langileekin hitz egitera joenez». Horrek lanketa handia eskatzen duela aitortu du, eta, epe ertain batean ELA sektore horretan murgilduko dela aurreratu duen arren, gaur-gaurkoz ez du esan nahi izan noiz hasiko du-

ten antolaketa hori. «Agendan daukagu, eta, mugituko gabela erabakitzen dugunean, sindikatu mugimendu indartsu bat eragingo du hautu horrek». Polarizatutako sektore bat antolatzeko zaila izaten baita.

Pankartaren beste aldea

Salatzaileen aldean sindikalizazio prozesua abiatu gabe dagoen arren, salaketaren ardura ATH-ELEk hartu izan du urte luzez, bereziki Bizkaian. Borrokatzeko beharra egon badagoelako, Lorea Ureta hango kidearen arabera. Behargin horiek askotan gehiegikeriazko lan baldin-

tzetan aritzen direla dio, eta horren erantzule nagusi egin ditu enplegu agentziak: «Agentzia horiek harremanetan jartzen dituzte langileak eta familiak; kontratua egiten laguntzen diete, baina kontratu hori langilearen eta enplegatzailearen artekoa da. Behin sinatuta, agentziak desagertu egiten dira». Jarduera hori, ordea, legezkoa da. Bitartekaritza hori egin dezakete, baina, Uretak salatu duenez, agentziek ez dute ardurarik hartzen langilearen baldintzen inguruan. «Asteko egun guztietan atsedenek hartzeko aukerarik ez duen langile bat eskatuz gero, hori eskuratzen dizute». Eta hor hasten dira arazoak.

Halako lan baldintzen berri eman eta salatze-ko, behin eta berriro jo dute lan ikuskaritzaren atea AHT-ELEko kideek, baina «horiek ere ez dute euren betebeharra betetzen». Alegia, etxeko langileen lan eremuak ez dituzte ikuskatzen, eta, horregatik, enplegu agentzietan nahi duten bezala aritzen direla salatu du. «Badakite ez dituztela lan baldintza horiek ikuskatuko; beraz, nahi dutena egiten dute». Arrazoi horiengatik, azken boladan, AHT-ELEk salaketa eta mobilizazioak egin ditu Serhogar agentziak Bilbon duen bulegoaren aurka. Iazko abenduan egindako sala-

ketaren arabera, legez kanpoko ordutegi eta baldintzak eskaintzen ditu bulego horrek, langileei astero dagozkien atsedenek errespetatu gabe. BERRIA saiatu da Bilboko bulego horrekin harremanetan jartzen, baina ez du lortu haiek hitz egitea. Durangoko bulegotik iritsitako erantzunaren arabera, ordea, Serhogar agentziak gutxieneko baldintza batzuk betetzeko eskatzen die enplegatzaileei. Hala ere, bulego bakoitzak modu ezberdin batean lan egiten duela argitu dute, elkarraren artean autonomoak direla. Bulego bakoitza frankizia bat da. «Langile egoiliar bat eskatzen badigute, 900 euro baino gutxiagoren truke ez dugu egiten bitartekaritza lanik».

Hain zuzen ere, gutxieneko soldataren muga hori adostu zuen AHT-ELE elkarteak 2014. urtean hainbat gobernuz kanpoko erakunderekin batera. Joan den urtean berriro zuten akordioa, eta, gaur egun, langile egoiliarrei gutxienez 925 euroko hamalau ordainsari ordaindu behar zaiela adostu dute, Gizarte Segurantzako kotizazioaz gain. Zigor Gorriti CEAREko enplegu teknikaria da, eta hainbat enplegu agentziak erabiltzen dituzten gehiegizko baldintzak kritikatu ditu hark ere: «Ezagutzen dugu gisa horretan lan egiten duen hainbat agentzia; lan baldintza kaskarrak ezartzeaz gainera, horren truke kobratu egiten dute. Ez da batere justua». Horregatik, gutxieneko baldintza batzuk adostu beharraz hitz egiten du, horiek ondoren enplegatzaileei azaltzeko. «Horrela egin ezean, ez dugu lortuko etxeko langileen baldintzak hobetzea».

denean, berdin zitzaidan egoiliar egotea. 'Zer inportako du?', nioen. 'Ez daukat inortxo ere hemen'. Halaxe, ohitu zen bizitoki zituen etxeetako etxekoandrea eta jaunena -guztiek erabiltzen dituzte hitz horiek enplegatzaileez mintzatzen direnean- etxeetako ohitueta, usaineta, maitasun keinu eta mespretxuetara.

Begiradarekin argi utzi du dena, den-dena, ez duela kontatuko. «Batuetan pertsona onekin ibili gara; besteetan, txarrekin». Aski da horrekin. Orain bi etxetan ari da beharrean, bi adinako pertsona zaintzen. «Oso sinplea da: nik haien beharra dut, eta haiek nirea. Hori da dena». Aitortu ditu, hala ere, hasiera arazoak. «Paperik ez duzunean, oso zaila izaten da dena».

Iruñean sortua da. Beste hainbat ogibide ere izan ditu, baina gaztetatik aritu izan da etxeko langile: umezain, garbitzen. Legeak zedarrizten dituen arauetatik at jardun du usu, beste langile askoren erara: beltzean.

Ana. «Gizarte Segurantzaren izena emateko kezka atzeman dut familien partetik»

Al.

Jar ezazu Ana». Ez du benetako izenik eman nahi. Nabarmendu nahi du, hala ere, ez duela aparteko arazorik sentitu nehoiz etxeko

langile. «Ni nire lana betetzen saiatu naiz beti, fin aski; oso serio hartzen dut, beste edozein lanengisara». 20 urte zituenean hasi zen: «Bi ume zaintzen». Hainbat familietan jardun du ordutik: haurrak zaintzen, etxek garbi-

tzen. Orduka beti. Eta Gizarte Segurantzaren izenik eman gabe. 2012an, Espainiak Gizarte Segurantzaren atal berri bat sortu zuen etxeko langileentzat, eta ordutik ikusi da gero eta langile gehiago ari direla Gizarte Segurantzaren ize-

na emanda lanean. Lanerako deitu izan dioten familietan atzeman du horren inguruko ardura Anag ordutik. Gero eta nabarmenago. «Gizarte Segurantzaren izena emateko kezka atzeman dut familien partetik; niri hainbatetan egin didate proposamena, baina nik neronek esan dut ezetz: nahiago dut dirua gaur osorik jaso». Ekonomia beltzean orduka etxeko langile ari diren emakumeetako bat da; sektoreko eremu ikusezinetariko bat. Etxeko ekonomian «laguntza bat» da harena. Anaren arabera. «Senarrak lan egiten du; ez gaude gaizki». Aitortzen ditu, hala ere, horrela jardutearen eragozpenak: «Gertatu izan zait gaixotu eta lagunei mesede eske ibili behar izatea, nire ordez lanera joateko».

AGENTZIAK
GILEENTZAT

Populazioaren zahartzeak –eta, horren ondorioz, dementzien ugaritzeak– dakartzan arazoak gero eta agerikoagoak dira; horrek gaur egungo gizartean sortzen dituen premia gorriek adabakiak jartzeko erabiltzen dira sarritan etxeko langileak.

Zainduko duen mundu berri batera

A. Iraola

Larrialdi egoera batean gaude, bai osasun ikuspegitik, bai ikuspegi sozialetik eta bai politikoki. Nola eman behar da erantzuna?». Aubixa fundazioko zuzendari exekutiboak da Maximo Goiakoetxea. Gizarte Ekintzako diputatu izan zen Gipuzkoako Foru Aldundian, eta Donostia ospitaleko zuzendari kudeatzailea ere izana da. Egun, erretiroa hartuta dago, baina gizarte eta osasun zerbitzuetan –usu gizartearen bazterretako arazoak era gordinean erakusten dituzten talaia horietan– lortutako esperientzia gizarteari itzuli nahi dio; Aubixan, hain justu, gizartearen zahartzeak eta dementzien ugaritzeak dakartzan arazoez ohartarazteko

dihardute lanean. Eta kezka eragiteko moduko iragarpenak dituzte esku artean. «Datuak izugarriak dira, soziologo guztiak esaten dute 2050erako gizarte honetako heren bat 65 urtetik gorakoa izango dela. Bizi itxaropena luzatu da, eta luzatzen ari da; hori albiste ona da». Baina ondorioak ditu: artetagarriak. «65 urtetik gorakoan artean, %8k Alzheimerren gaitza izango dute, eta 80 urtetik gorakoan artean, ia %25ek. Pentsa zer kopuru den hori». Hortik ezinegona.

Diziplina askotako adituak ari dira kezka horren inguruko erantzunak onten Aubixan. Tartean dago, adibidez, Joseba Zalakain; gizarte gaietako ikertzailea da, eta zaintzari gaur egun –sarritarako etxeko langile etorkinak kontratatuz; egoiliarren artean ia guztiak dira, hain zuzen ere, atzerrikik etorritakoak– ematen zaion erantzunari buruzko gogoeta interesgarriak plazaratu berri ditu

Esperientzia txar eta minberak bat bestearen atzetik zerrendatzen ditu; atzeritik lanera etorri eta etxectan egoiliar lanean zebilela edukitakoak dira gehienak. «Mespretxu gehiegi jasan ditut».

O. Romero. «Gaixotu nintzelako bota ninduten lan batetik»

A.I. Iruñea

Hiru urte daramatzat Euskal Herrian. Premia gorriak bultzatuta etorri nintzen, Hondurastik». Etorikin baten testigantza da O. Romerorena (Comayagua, Honduras, 1966). Nafarroan dabil orain, baina berria da han. Bizkai aldean ibilia da orain arte, eta esperientzia lortu du han etxeko langile gisara. Mingotsa:

«La urtebete egon nintzen Bilbon, etxe batean. Oso esperientzia txarra izan zen. Hilean 700 euro kobratzen egon nintzen; astean zazpi egun egiten nuen lan: egunean bi ordu besterik ez nuen libre». Gaixoaldi baten ondorioz amaitu zen lan esperientzia hura. «Gaixotu nintzelako bota ninduten». Ongiegi oroitzen du zer jazo zen arrotz zuen etxe hartako korridoreetan. «Erietxera joan behar izan nuen bi aldiz». Bigarrenaldi hura

azkena izan zen. «Handik hiru egunera, etxekoandreak esan zidan kaleratu egingo ninduela; jor-laga ninduen. Zergatiak galde-tu, eta zera erantzun zidan, zainduko zuen norbait behar zuela, bi aldiz gaixotu berria nintzela, eta sasoiangezagoen norbait behar zuela». Paperik gabe zegoen, eta kontraturik ere ez zuen. Hala ere, Etxeko Langileen Elkartera joan zen, eta, haien bidez, lortu zuen kalte-ordain bat eskuratzea.

«Elkartera jotzeko esan zidaten, eta lagundu zidaten. Hasieran uste nuen paperik ez nuelako ezin zela deus egin, baina elkartean lagundu zidaten, eta ulertu nuen paperik gabe ere eskubideak badirela. Horregatik, orain jendea aholkatzen diot joateko elkartera; han gutaz arduratzen dira, abokatuak daude, eta xentimorik ere ez da ordaindu behar izaten». Ez zen izan Bilbon izandako esperientzia txar bakarra.

«Lan batean hiru egun egin nintzen. Etxekoandrea galdezka eta galdezka ibili zitzaidan, eta ulertu zuenean ni ez naizela katolikoa –ebanjelikoa naiz–, zera esan zidan: ‘Imajinatzen nuen, bai, zu sekta horretako kidea izango zirela. Jakin izan banu, ez zintuzkedan hartuko’. Eta kalera bota ninduen». Hirusta osatzeko, beste esperientzia minbera bat. «Behin abokatu batean etxean aritu nintzen, Bilbon. Haren senarrari galdetu nion lan kontratua zergatik ez zidan egiten...». Ezin du ahantzi jasotako erantzuna: «Esan zidan ea ni nor nintzen, zer uste nuen, abokatua zela, bostere handia zuela... Mehatxu egin zidan; deportatu egingo nindutela. Esperientzia gogorra izan zen. Oroitze hutsarekin, pentsatzen dut hobeto nengoela nire herrian; oso pobre, baina lasaiago. Mespretxu gehiegi jasan ditut».

Emakunderentzat Julia Nogueira ikertzailearekin batera egin duen azterlanean: *Emakume etorkinen diskriminazio multiplea etxeko lanetan eta zaintza lanetan Euskal Autonomia Erkidegoan*. Argi du: egun zaintza behar duten pertsonen arta emateko ehundu den babes sistemak gabeziak ditu, agerikoak. Zalakairen arabera, Mediterraneoko beste hainbat herrialdeetan eman zaion «konponbide funtzionala» gailendu da Euskal Herrian ere zaintza beharrei erantzuteko. «Eta zuloak ditu: zolorik handiena da kalitate falta; ez du bermatzen arta egokia, batez ere behar handiak dituzten pertsonentzat. Langile askorentzat, halaber, hor tentsio bat dago; ez da lan on bat, baina askok lanerako duten aukera bakarra da. Horrek hutsuneak dituela argi dago».

Etxeko langile ari diren andre etorkinek «diskriminazio» hirukoitza jasaten dutela azaldu Zalakainek; kanpokoak izateagatik, andre izateagatik, etxeko langile izateagatik. «Etxeko langile, gainera, era informal batean», azaldu du. «Ez da enpresa txiki bat ere; sindikatuak-eta agertu ere ez dira egiten. Etxe baten barruan da, hor sortzen diren hartu-emanekin. Horiek ez dira enpresa batekoak, ez daukazu buruzagi argi bat, familia batean zaude, eta hor sortzen da halako kaxa beltz bat. Ikusten da nor diren lan horretara doazenak: ahulenak». Hain justu, horren atzean «klase borroka bat» ere badagoela oroitarazi du; andre horiek kontratatzen dituzte bertako familiek beren bizimoduari eutsi ahal izateko.

«Ez dugu konponbide kolektiborik arazo kolektibo batentzat; konponbide indibidualak sustatzen dira»
Laura Gomez
Berdintasun politikan aditua

«Zaintzaileek prestatuta egon behar dute; ez borondate ona dutelako bakarrik, prestakuntza dutelako baizik»
Maximo Goikoetxea
Aubixa fundazioko zuzendari exekutiboa

«Eredu bat behar da zerbitzu ehunduagoak eskainiko dituen, eta gertuko en zaintza ere aintzat hartuko duena»
Joseba Zalakain
Gizarte gaietako ikertzailea

premia. Gipuzkoako Foru Aldundia aitzindari da, esaterako, mendekotasuna aitortu zaien pertsonak zaintzeko etxeko langileen kontratazioak egiteko diru laguntzak ematen –5.000 mendekori lagundu zaie horrela–. Aitor Marín da aldundian Mendekotasun Prestazioen atalburua, eta aitortu du langile horietako askok ez dutela alorrerako «trebakuntza-

langileek astia behar dute hori egin ahal izateko». Askorentzat ezinezkoa da. Lanbidek, halaber, orain alorrerako «formakuntza plan bat» ontzeko duela adierazi du Marinek. «Berandu gabiltza». Etxe askotako korridoreetan ongi prestatu gabeko beharginak daudela badaki Goikoetxeak ere, eta adierazi du prestaketari ematen zaion arreta urria orain gutxi arte agiri ofizialetan ere halaxe agertu izan dela. «Ni 80ko hamarraldian hasi nintzen gai hauetan; bazegoen dekretu bat jartzen zuena zaintzaile horien trebakuntzak izan behar zuela *etxekoandre batenaren parekoa*... Nik hori idatzita ikusi dut, baina horrek ez du balio. Alderantziz, zaintzaileek ongi prestatuta egon behar dute; ez borondate ona dutelako bakarrik, prestakuntza egokia dutelako baizik. Alorreko langileen prestakuntza beharrezkoa da; ez da nahikoa norbait lau xentimoren truke kontratatzea».

Sustraietatik egindako eredu aldaketa bat proposatzen du Laura Gomezek. Gipuzkoako Foru Aldundian Berdintasun zuzendaria izan zen aurreko legealdian, eta aditua da berdintasun politikan. Zaintza lanak gaur egun ulertzeko dagoen era –«ikusezina» dira, ez zaie baliorik onartzen, doan egiten dira, eta feminitzatuta daude»– irauli egin behar dela uste du. «Izan ere, lan horiek baliorik nola ez zaien onartzen, horiek erostera egiten denean oso baldintza kaskarretan erosten

dira. Ondorioz, lan horiek, oraindik ere, aukeratzeko modurik ez duten gizarte taldeenak dira». Kalteberenenak: andreenak eta, maiz, etorkinenak.

Sistema kapitalistaren muinean guztiz dago mamituta zaintza ulertzeko era oker hori, Gomezek ustez, eta horregatik da garrantzitsua erroko aldaketak egitea. Izan ere, hilurren dagoen sistema bat lutzatzeko ahal egin 2013an, eta horiek ez du ikusten egun ageri diren desoreketan. «Zaintza sistema tradizionalak ja ez dute funtzionatzeko», ohartarazi du. Instituzio publikoek ez diete erantzun horiek dakartzan beharrei, eta horatik dator arazoa, Gomezentzat; etxe askotan mendekoak zaintzen nahi eta ezinez ibiltzea dakar, eta zaintza lanetarako kontratu aski kaskarren «merkanti-



luzteari –zaintzari lotutako rol horiek–. Ondo bidean, instituzioek, sendiek –horiek era zabalean ulertuta– eta irtenbide komunitarioek bat egin behar dute.

Bat datoz denak: familiei zama kendu behar zaie. «'Nola familiak hor dauden...', esaten da oraindik». Harago egitearen alde dago Goikoetxea. «Zein eredu gustatzen zaigun? Ahalik eta komunitarioena, erdian gaixoa jarritara, ahal izanez gero bere etxean edo etxe inguruan edukita. Horrek esan nahi du zaintzaileak behar direla: trebatutakoak». Eskaria berritu du. Zalakainek eredu «misto» bat nahi du: «Hain justu, Europa iparraldeko ereduak begira, eredu bat behar da zaintza zerbitzu formal ehunduagoak eskainiko dituen baina, halaber, familiarren eta gertuko en zaintza ere aintzat hartuko duena».

Ez daki oraindik zer den egoiliar egotea; ordukako lanak lortu ditu Hondurastik Iruñera iritsi zenetik. Badaki, ordea, horixe dela paperik gabe, dagoen eran, sor dakizkioken aukeretakoa bat.

S. Machado. «Zerbait ebatsi dudala egotziko didaten kezka dut»

A.I. Iruñea

Lanaren nekeez bainoago, lanik ez dakarren ezinegonaz mintzo da S. Machado (Comayagua, Honduras, 1967). Bi urte beteko dira aurki Hondurastik etorri zenetik, eta etxeko langile gisara lan bila ibili bada ere, aukera gutxi izan ditu. Bat datoz etxeko langile gehienak: lan aukerak, krisialdiarekin, apaldu egin dira. Eta gaur

egun ordukako hainbat lan baditu ere –«bi etxe garbitzen dihardut»–, behar gorrian dago. Seme-alabekin bizi da hemen, eta estu dabil. «Egia esatea nahi baduzu, diru aldetik hobeto nengo Hondurastan: ez gara ari batera ondo pasatzen. Lanerako moduko bi esku ditudala, eta edozein unetan lanen bat atera dakidakeela... Horixe da onena». Lortu dituen lan bakarik beste emakume etorkin batzuekin harremanetan

lortu ditu, elkarrekin ehuntzen dituzten elkartasun sareen bidez. «Egoiliar egoteko ere prest nengoke, baina ez dut oraindik horretarako modurik izan». Inguruan beste andrazko asko ditu etxeko lanetan, eta haien lekukotasunek, hala ere, kezka sortzen diote. Ugariak izaten dira pasadizoak, halakok eta bestelakok ikusi eta entzundako bizipenak. Etxe arrotza norberaren bizitoki egitea, eremu intimo horren barrunbete sar-

tzea, ez da beti erraza. «Entzuna dut, esaterako, zerbait etxekoandrek langileak bota egiten dituztela lapurretan egin dutela egotzita; horixe da nire zalantzetako bat: zerbait ebatsi dudala egotziko didaten kezka dut». Izan dituen lanetan, halaber, dagokiona kobratzeko nekeak sarri izan dituela adierazi du. «Hiru ordu lan egin eta ordu bete ordainduta utzi izan ohi naute sarritan, hurrengo egunean pagatuko didatela esanez».